

Mamboak aita galdu du

Israel 'Cachao' Lopez 89 urterekin hil zen atzo, mamboan eta jazz latinoan nabarmendu zen aurrez

ERREDAKZIOA

Kontrabaxuak egin zuen ezagun Israel *Cachao* Lopez. Kontrabaxuarekin mambo eta jazz latinoa jotzeko zuen birtuosismoagatik nabarmendu zen. Lehenik Kuban gazte zelarik, eta handik kanpora berehala. Atzo, 89 urterekin zendu zen, Miami ospital batean aste-bete egin ostean.

Zazpi urterekin perkusioarekin sartu zen musikaren mundura, baina gutxira, kontrabaxuari hel-



Israel *Cachao* Lopez (1918-2008). ALBERTO MARTIN / EFE

du zion. Habanako Orkestra Filarmonikoan hasi zen 12 urterekin, bere aitarekin eta anaiarekin batera, eta ordutik bere bizitza musika

herrikoia eta klasikoaren artean erdibituko zen.

1937. urtean anaiak eta biak mambo sortu zuten, Kubako

erritmo dantzagarrietatik abiatu-rik. Hamar urteren buruan, mambo mundu osoan entzuten hasiko zen, Damaso Perez Pradok Cachao nazioartera atera baitzuen.

KUBATIK AT. Castro boterean jartzearekin batera, Kubatik atera zen eta lehenik Espainian eta ondoren AEBetan zerotik hasi beharra izan zuen musika egiten, *night club*-etan, festetan eta auzo baztertuetako kantaldietan pianoa joz.

1993an Andy Garciak fama ekarri zion, *Cachao, como su ritmo no hay dos* film dokumentala egin baitzuen musikagileari buruz. Bere lehen Grammy saria eskuratu zuen lan horrekin, 2005ean bigarrena jaso zuen. 3.000tik gora abesti utzi ditu.

Bi harriz hiru bitxi

KRITIKA

ANTZERKIA

'LE PETIT THEATRE DE PAIN'

AGUS PEREZ

Urtero bezala euskarazko zenbait ekitaldi antolatuta dira Miarrizten Bi harriz lau xori ekimenaren harira, eta urtero bezala aukera politik sortu dira bertako euskaldunen arteko giroa biziberritzeko. Gainera, hasierako lehen bi egunetan Le petit theatre de pain izan da ekimeneko protagonista, eta aurkeztu dituzten hiru antzezlanek aukera eman digute Nafarroa Behereko konpainia gaztearen bikaintasuna ezagutzeko.

Dudarik gabe, hiruretan inpaktu gehien sortu digun proposamena Faffiolo Palassioi zuzendu eta antzetzutako *Tartean* izan da. Testuak Michel Azamaren *Le sas* eleberrian du jatorria, eta bertan bere gogoetak eta sentipenak plazaratzaren dituzten presondegitik aske irteko zorian den emakume batek. Testua bera indar handikoa da — are gehiago jakin ostean egileak hainbat presoren kontakizunak jaso zituela idazketa-tailer batean —, baina haren indarraren gainetik Miren Artetxe eta Inaki Etxelekuren euskaratzeak benetako zirrararen sortzen du, bere maila literario jasoarengatik.

Palassioaren antzezpene testuaren zerbitzura jarri zen denbora guztian, deklamazio perfektu, gorputz jarrera zehatz eta begirada kementsuarekin azpimarratuz presoaren gogorapen gogorak eta etorkizunari begirako beldurrak. Bestetik, harrigarria izan zen antzezeleak erakutsitako gaitasuna testuko pertsonaia guztiei sines-

garritasuna emateko eta rol bate-tik bestera di-da batean igarotzeko. Azkenik, argien zehaztasun monokromoa eta eremu eszenikoaren zorrotzotasun beltza laguntza handikoak izan ziren emakumearen barne-giro itogarria sortzen.

Bigarren antzezlan, Mariya Anevak zuzendutako *Juglarea, puta eta eroa*, aukera bikaina izan zen euskararen doinu eta kalitate desberdinekin gozatzeko, Dario Foren hiru testuok itzultzaile barenaren euskaratze berezia jaso dutelako. Antton Lukuk baxenafarrera aukeratu du *Juglarea* euskaratzeko, Artzea Lopez Aranek hiri-gipuzkeran eman du *Putxa* izeneko atala, eta *Eroa* zuberera ederrera itzuli du Allande Etxartek. Hiruretan Ximun Fuchs izan zen antzezele bakarra, eta antzezteko duen gaitasun ederra frogatu zuen guztietan, muturreko pertsonaiei bizi sendoa emanez eta gure aurrean gauzatzu haietariko bakoitzaren karakterizazioa.

Bigarren pieza hau ikusi ostean argi izan genuen konpainiaren ezaugarri nagusia dela elementu gutxi baina esanguratsu batzuekin ahalik eta produktu eszeniko ahaltsuenak sortzea, inspirazioa, barne-prestakuntza eta testu garraikideen indarra ezin hobeto baliatuz.

Azkenik, Sarrionandiaren *Aulki hutsa* eszenaratu zuen Manex Fuchsek, Ander Lipusen zuzendaritzapean. Beste bietan bezala, zoragarria eta erabat indartsua izan zen antzezpene, eta kasu honetan, gainera, Iurretakoaren poetika soil eta sakona ederto azpimarratua zetorren, bozgorailu handia irudikatzen zuen eszenografiarekin, argiztapen tenebristarekin, gogorapenei begira jarritako soi-



Manex Fuchs *Aulki hutsa* eszenaratzen. ISABELLE HENRY

nu-banda samurrearekin eta elementu eszenikoaren erabilera sinbolikoarekin. **Obrak:** *Tartean* / *Juglarea, puta eta eroa*

/ *Aulki hutsa*. **Lekua:** Miarrizteko Les decouvertes, Colisee eta Gaztetxea. **Egunak:** Martxaek 19 eta 20.

Tomas Hernandez Mendizabalek 'Antologia' jarri du ikusgai Tolosan

ERREDAKZIOA

Donostia

Ildo askotako 65 eskultura jarri ditu ikusgai Tomas Hernandez Mendizabalek Tolosan, Aranburu jauregian. Piezok *Antologia* izeneko erakusketa osatzen dute, egilearen izaeraren berri ematen duen lana. Eskulturgilea izateaz gain, pinturan ere aritzen da Hernandez Mendizabal, eta kartelista gisa sorluntza amitz egin ditu, baita Tolosako inauterien berri eman dute-nak ere. Orain herri horretara eramandu ditu bere sorluntza esanguratsuenetako hainbat.

«Buztinarekin hasi nintzen eskulturan, ia jolas bat bezala, eta erakusketa honetan 70eko hamarkadatik hasita gaur arteko lan esanguratsu guztiak daude», dio artistak. Esaterako, *Trikitilariak* eskulturren eskala bat dago Aranburu jauregian, 1988ko obrarena. Baita Hernaniko 200 errepublikar fusilatuen omenez egindakoa ere, edota Tolosako zezen-plazaren omenezkoa.

Finean, eskultura alorrari dago-kionez, Tomas Hernandez Mendizabalen atzera begirako bat gisa har daiteke Tolosako erakusketa, haren ibilbide osoaren berri ematen baitu.

Juan Carlos Romanek arteaz gogoeta egiten du Trayecto galerian

ERREDAKZIOA

Gasteiz

Olioen eta akuarelen bidez, artearen inguruko gogoeta egin du Juan Carlos Roman artista bilbotarrak *Sarkinen lotsagabekeria* izeneko erakusketan. Obra bilduma hori Gasteizko Trayecto galerian dago ikusgai hila amaitu artean.

Naturari eta animaliei erreparatu sortu ditu pintoreak bere olioak eta akuarela. Obra horiek arteari, ekinza artistikoari eta artistaren testuinguruari buruzko hausnarketa egiten dutela dio egileak. Neurri handiko bederlatzi margolanek osatzen dute erakusketa. «Sarritan jazotzen da artearen historia notarioek idazten dutela, baina artistak ez du haien jokabidea jarraitu behar, artistak gauza zoragarriak egin behar ditu», dio Romanek. Eta bera gauza zoragarriak egiten saiatzen dela gaineratzen du. Bere margolanak koloretsuak dira oso, baina estetikatik harago joan nahi izan duela nabarmentzen du Romanek.